

MIKEL ERRAMOUSPE

« Hitzik ezin atera eta ixilik ezin egon », erranzahar hau izan daiteke ene gaurko egia.

Alabainan nola bil bizpahiru hitzetan Mikel Erramousperen bizi aberats eta emankorra!

Ene lekukotasun xumea hain zuzen hitz zenbaitetan mugatuko dut, eta oroz gainetik Mikelekin Euskal Kultur Erakundean iragan mementoetako irakaspenak aipatuko ditut.

Lehenik, Mikel osoki EUSKALDUNA da ; ahozkotik idatzira, euskal kultura eta bereziki herri kultura bere baitan errotuak ditu.

Etsenplu bakar baten emaitako, zenbat eta zenbat gitarra soka ez ditu egundainokotik egundainokora torratu eta gaur egun ere oraino torratzen, eta zorionarekin batera zenbat xikrikaldi ere jasaiten, herriko haurrak, gazteak kantuz eta kantuz ari daitezen, euskal kantuak ezagutu eta arraberri ditzaten, beti kalitatea eta edertasuna bilatuz?

Bai, Mikelek badaki Euskal Herriko ondare altxorak ikertzen, etengabe transmititzen eta ber denboran, aldaketei besoak zabaltzen. Mikel Kultura gizona dugu, jakin-min handikoa, nola Euskal Herriaz, hala munduko geopolitikaz.

Beste hitza ongi joanki zakona : JENDETASUNA, edo besteekilako harreman jakinduria.

Badaki egoera zailenetan ere, mantsoki egoiten, kanpotik horrela iduri du bederen, beti gogoan atxikiz halere ardietsi behar duen helburua. Bainan horren lortzeko, ikasi du besteen entzuten, ixil-ixila, enpatia anitzekin, besteen iritzi guziak

kondutan hartuz. Mikelek ez du pentsamendu bakarra gustukoa, bainan bai bakoitzak bere baitarik dakarrena, ur xirripa txikienak aberasten duen itsaso zabal hura.

Beti gogoan dut halako aldi batez Mikelek erran zautana: « Etzakala sekulan erran ez dakikala. Beti izanen duk norbait erraiteko hi baino gehiago dakiela ».

Hots, Mikel BATERATZAILEA da jende ezberdinen beregana biltzeko eta behar diren sinergiak sortzeko.

Beste hitz bat behar banu hautatu Mikelen aipatzeko, UMOREA litzateke.

Anitz maite du arraileria, eta zenbat eta zenbat ixtorio ez ditu gogoan, beti baten erraiteko prest!

Oroitzen naiz batzuetan, sagutxo baten antzera EKEko ene bulegora sartzen zela. Ni burua kaldan lan bat bururatu nahian edo desgustu bat ezin iretsiz ari...

Mikel orduan hasten zen: « Kondatuko deat ixtorio pollit bat, Alduden gertatua! ». Eta berehala, biak irriz karkailaka hasten ginen. Betidanik entzuna dut serioski mintzatzen garelarik, denek gauza bertsia erraiten dugula, aldiz arraileriak beti ezberdinak direla!

Urhentzeko, bi hitz erranen ditut Mikelekin EKE n ukan ditudan harremanetaz : arraroak izan dira. Pentsatzen dut bikote ederra egin dugula eta umiltasunez gehi nezake, 18 urtez saiatuko garela, neurria neurri, edo haize eta euri, euskal kulturaren loratzen, hurbileko eta ixileko lanaren eramaten elkarteekin, erakundeekin, hainbat eta hainbat partaideekin, nola Euskal Herrian, hala kanpoan.

Beti zure tokian egonez, lagundu nauzu, argitu nauzu, bereziki memento dorpe zenbaitetan, beti konfiantza osoa eginez eni

eta lantaldeari. Konfiantza egitea, ba ote da egin molde egokiagorik, bidaide fidel eta esku zabala izaiteko? Bihotzez eskertzen zaitut Mikel.

18 urtez EKE ordezkatu duzu, eta gaur egun ere oraino segitzen duzu; transmisioa segurtatu duzu ezinago hobeki bai zuzendari, bai lehendakariarentzat.

Bideak urratuz eta beti geroari begi
Mikelek badu oraino gogoan egiteko ugari
Luzaz hala izan bedi...

Pantxoa ETCHEGOIN

Larresoro, 2022ko azaroaren 19an

MIKEL ERRAMOUSPE

Ces quelques mots ne suffiront pas à peindre la personnalité de Mikel Erramouspé mais je vais tâcher d'en dégager quelques traits.

Mikel est avant tout profondément BASQUE. Il est attaché à sa langue, l'euskara, à sa culture, qu'elle soit orale ou écrite, mais ce qu'il recherche, ce n'est pas uniquement les défendre mais les faire vivre dans le quotidien et le présent, les transmettre sans relâche aux différentes générations.

Un autre mot qui lui colle à merveille et que l'on entend beaucoup ces jours-ci : la sobriété. Oui, Mikel est un homme sobre dans son être, ce qui lui permet, toujours dans la mesure des mots et des faits, d'être fédérateur pour avancer ensemble, pour bâtir des ponts entre les femmes et les hommes, pour partager ses savoirs avec les autres.

Dans nos entretiens, Il m'a maintes fois parlé d'un concept américain qu'il adopte dans son quotidien : le « Soft-Power », à savoir le pouvoir doux, mais jamais mou! Mikel est plein d'empathie, avec une capacité de persuasion, de séduction. En gardant son calme dans les situations les plus compliquées, il sait respecter les autres, écouter leurs diverses opinions pour tenter d'atteindre l'objectif fixé.

Enfin, Mikel est un homme d'action et de vision. Un binôme lui tient à cœur : la Reflexion-Action. En effet, il ne suffit pas de réfléchir, encore faut-il passer à l'action. Alors Mikel privilégie

la pratique active à la connaissance passive ; l'expérimentation pour vérifier les points forts et les points d'effort d'un projet est son fort. De même, il est visionnaire. Il est attaché aux valeurs que ses ancêtres lui ont transmis et en même temps, il est ouvert aux changements ; il est curieux pour introduire des nouvelles idées et des pratiques et utiliser toutes les ressources pour relier une société si multiple et diverse et créer des moments de convivialité entre les habitants de notre territoire. N'a-t-il pas été par exemple précurseur dans les années 1980-90 pour bâtir un projet de création d'une télévision de proximité dans la vallée des Aldudes et former des techniciens du multimédia, persuadé qu'il était de l'importance de l'audiovisuel dans la connaissance du patrimoine culturel et immatériel du Pays Basque.

Enfin, Mikel est un homme attachant, plein d'humour. Il a compris bien avant François Rabelais que « le rire est le propre de l'homme ».

Pour conclure, je souhaite évoquer les relations privilégiées que j'ai eues pendant 18 ans à l'ICB avec le président Mikel Erramouspé. Il m'a soutenu sans faille et conseillé – à moi et à l'équipe professionnelle – dans les différentes actions mais aussi dans certains moments de turbulence. Comme vous le savez, l'ICB est à la fois un grand paquebot puisqu'il transporte multitude de voyageurs, mais c'est aussi une petite chaloupe qui doit avancer bon an mal an contre les vents contraires où dans les tempêtes, la manœuvre n'est pas facile pour accoster au port ! mais tout en restant humbles, soyons fiers des différentes initiatives menées ensemble pendant tant d'années, avec une gouvernance originale et une expertise

partagée avec les autres acteurs autour de la culture basque pour contribuer à une politique culturelle porteuse de sens.

Nous venons tous les deux de passer le témoin à la fois à un nouveau directeur et à une nouvelle présidente de l'ICB. Que le travail accompli permette de contribuer à réussir le pari sur l'avenir de la culture basque, et partant de l'ICB.

Il ne me reste plus Mikel qu'à te remercier chaleureusement pour ta fidélité et ta générosité à toutes épreuves. Bihotzez milesker.